



[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

515. zk.

XIII. urtea

2005eko urtarrilaren 28a

Tariku Bekele txapeldun Mugerza Krosean

ALBOKUAK INMOBILIARIA



IREKI BERRI

Errosario 12an

Tel.: 943 74 06 73

**ETXEBIZITZA BERRIAK
ERROSARIO KALEAN**

Jaika

jatetxea



- 25 - 30 lagunentzako jangela
- 6 - 8 lagunentzako jangela pribatua
- Karta zabala
- Enkarguzko menu bereziak
15 €tik hasita
- Eguneko menua 7 €

Pedro Muguruza, 27 behea

Tel.: 943 74 10 29



MIKEL CORNEJO

ZOZOAK BELEARI...



IBAN URIZAR

Ibane, maitea:

Epeen menpe berriz ere! Ondo ezagutzen dugu elkar, badakizu gauzei pare bat buelta baino gehiago ematea gustatzen zaidala, baina hainbeste pentsatu eta gero ezer ez bada egiten...asunto txarra!

Beraz, eskutitz hau idazteko nahikotxo buelta eman dizkiot buruari. Eta zerbaitetaz konturatu naiz: ezezagunek irakurriko duten gai batetaz idazten dugunean, kontatuko duguna grandioso, traszendentala, potentea, inpaktantea, definitiboa izan dadin saiatzen garela. Eta ba al dakizu zer? Inposibol!

Hurrengo eskutitzetan gauza handietaz aritzeta tokatuko zaigu agian, baina nik eguneroko gauzetaz hitz egingo dizut.

Fededuna ez naizen arren, badago asko gustatzen zaidan esaldia! "Jainkoa detailetan dago". Noizean behin gauzei hautsa kendu beharra dago, baina eguneroko hausnarketa txikiekin nire burua eraikitzen ari naizela uste dut, gure izaera eratzen duten zelula txikiak balira bezala.

Beno, Ibane, lehenengo pausua emana dago. Zurea bigarrena.

Geroarte!

P.D: Espero dut inork ez duela pentsatuko marikoia zarenik egin dizudan agurratetik, baina "Vaya semanitakoek" dioten bezala: "que a mi, ni me va ni me viene pero por comentarlo...".

«Jainkoa detaile-
etan dagoela
dioen esaldia
gustatzen zait»

MIKEL

«Esan beharra
dut...
Heterosexuala
naiz, eta zer!»

IBAN

Mikele panpoxa:

Epeen menpe diozu? Praka zabalagoak erostea hobe, ea potroak behingoz kabitzen zaizkizun! Bukatzear dagoen epearen bezperan luzatu didazuna, a ze nolako gutuna! Troyako zaldiairen istorioa ezagutzen? Pandoraren kutxa estaltzen duen eskuz idatzitako paper zati bat bidali didazu eta, gainera, kabroi halakoa, neuk transkribatu behar!

Gutun honek ideia ezkutu bat duela uste dut. Ez dut uste bata besteari idatzitakoa neurtu gabe geldituko denik, eta hori jakiteak ematen duen abantaila aprobetxatzea da hoberena, ezta? Horrek bai areagotzen duela morboa. Mezu kodifikatuak ezkutatatu ditzakegu, norbaitek ulertuko duenaren esperoan... baina benetan politena lumarekin antzeztea izango da, idatzitakoan zein aurpegi erakutsi behar den jakin eta beste guztia imajinazioari utzi, Elgoibarren asko dago eta (aurpegia ez, imajinazioa!). Kuriositatea esnatu behar!

P.D: Zure posdatatxoan hitzak pozoindu dituzula argi dagoenez, probokazioan eroriko naiz...beno, bai, e, ejem, esan beharra dut... HETEROSEXUALA NAIZ, ETA ZER!! Baina, entzun dudaren arabera, badago ni marikoia izatea gustatuko litzaioken norbait. Zorte txarra!! Lasai Mikele, gertatzen denean lehena izango zara-eta!!



ELURRA BERE AROAN ASEGARRI, HANDIK KANPO GOSEGARRI



Esaera zaharra

Izarren hautsa 40 urtean

Ezin dut aguantatu joan zen astean bitzakoa kontatu gabe. Pasa den ostegunean "Izarren hautsa 40 urtean" liburuaren aurkezpena izan zen. Aspalditik naiz Elgoibarko Izarrako bazkide eta militante, eta nire lehenengo soldatapeko lan serioa ere bertan egin nuen BARREN astekariko maketatzailer moduan. Liburu honen maketazioan ere parte hartu dut eta, bai, zergatik ez, esan egingo dut, harro sentitzen naiz horrelako proiektu batean parte hartu izanagatik. Benetan lan txukuna egin dugu.

Liburu honek azken 40 urteotan Elgoibarko euskalgintzan parte hartu duten 44 pertsonen testigantza jasotzen du. Elkarrizketak, argazki albun bat koloretan erdiko orrialdeetan eta baita zenbait gogoeta ere. Liburuaren egilea, azken 10 urteotan elkarteko dinamizatzailea izan den Imanol Larrañaga izan da. Eta lerro haven bidez zoriondu nahi dut, bai liburuagatik, eta baita urte guzti hauetan

Elgoibarko euskalgintzaren mesedetan egindako lanagatik.

Liburuaren aurkezpen ekitaldia ere aipatu nahi nuke. Nik ez dakit zahartzen hasi naizen seinale ote den, baina geroz eta errazago erortzen zait malkoa. Ostegunean ere, eridikulo galanta egin nuen zotinari eutsi ezinik.

Ekitaldia Musika eskolako areto nagusian izan zen. Ordu laurden falta zela, neska gazte bat pianoa jotzen hasi zen. Piano doinuek irauten zuten bitartean aspaldian ikusi gabeko jendea agurtu eta eseri egin ginen, eskuartean genuen liburuari lehenengo begiratua emanez. Puntual hasi zen aurkezpena, 60ko hamarkadan Luis Mari Iriondok super-8 batekin Euskal Jai batean grabatutako irudiekin. Adi geunden denok hainbeste dantzarien artean

ezagunen bat topatuko zain. Zeinen irudi politikak! Ondoren, elkarteko lehendakariaren eta herriko alkatearen hitzak. Biak ere bikain aritu ziren.

Eta zati serioaren ostean, han ginenon aurrera hurbilduta, liburuak sortu dizkion burukomin eta pozak azaldu zizkigun Imanolek. Ondoren, liburuiko protagonisten berba eta argazkiekin osatutako diorama etorri zen, eta hor hasi zitzaidan ordura arte menperatzen saiatu nintzen malko erreka! Tontola!

Ehun pertsona inguru bildu ginar aurkezpenera eta ziur nago 40 urteotan egin dugunaz harro gaudela guztiok, eta oraindik egiteke geratzen zaigunari aurre egiteko indar berriz atera ginela.

MAITE REMENTERIA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **ZUZENDARIA** Jasoñe Osoro **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorobategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurutxaga, Iban Urizar, Kokoe KE, Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESKARIA ZAHARRA** Gotzon Garateren libururik **INPRIMATEGIA** Geritu Koop. E. **TIRADA** 4.275 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855




Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



JOSEFINA GUTIERREZ BARRIO

San Lazaro egoitzako lankideok eta residenteok
gogoan zaitugu.

SAN LAZAROKO LANKIDEAK





TXALOK



Gazte koadrila batek **Minxeta Atletismo Taldea txalotu nahi du Mugerza Krosa antolatzeagatik**: "Aurtengoan ere lan bikaina egin du Minxeta Atletismo Taldeak, eta txalo zaparrada handi bat merezi du. Oso ondo pasatu genuen joan zen igandean, sekulako giroa izan zen Mintxetan, eta hotz egiten zuen arren, izugarri gozatu genuen. Aurtengoan ere korrikalari oso onak ikusteko aukera izan dugu, eta maila oso altua izan da lasterketan. Jarraitu horrela!".



KEXAK

Morkaiko kaleko bizilagunek esan digutenez, **ostiral eta larunbat gauean ezin izaten dute lorik egin, beraien etxepean demaseko iskanbila egoten delako**: "Asteburuero gazte mordoak etortzen da Guass-era, eta gure etxe azpian egoten dira auto barruan. Musika oso altu jartzen dute, eta sekulako zarata ateratzen dute.

Udaltzainei deitzen diegu, baina etortzen direnean musika kendu egiten dute, eta ezer pasako ez balitz moduan, udaltzainak joan egiten dira. Mesedez, dagokionak zerbait egin dezala. Festak direnean zarata egotea normala da, baina asteburuero lorik egin ezinda egotea jasanezina da".



GALDERAK

Udalak ematen al ditu etxebizitzetako fatxadak konpontzeko dirulaguntzak? Herritar batek egin digun galdera hau erantzuteko asmoz, Udalera deitu dugu, eta bertatik esan digutenez, ez dute etxebizitzetako fatxadak konpontzeko dirulaguntzarik ematen: "Lehen ematen genituen, baina inork ez zituen eskatzen, ez ematea erabaki genuen".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2 - 20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

ESKERTZA



2005eko urtarrilaren 21ean, 80 urte zituela hil zen **Felicia Navarro Torre** senarrak, semeek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



2005eko urtarrilaren 21ean, 88 urte zituela hil zen **Jose Maria Mendizabal Zubiaurre** ren emazteak, seme-alabek, bilobak eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





URRUZUNOREN Luma

American Malls

Ameriketako Estatu Batuetako salgune erraldoi batean sartu nintzen duela hamar bat urte. AEB, zentro komertzialez josita zegoen ordurako: mota guzietako fast food-a; pop corns & coke zinemen atarietan; dendak, dendak eta jendea kontsumitzen.

Hamar urte barru, Euskal Herriko eskualde bakoitzak bere *American mall*-a izango du. Jai egunetan haize egokitua arnastera bertaratuko gara guztiok. Dendetan 11 buelta emango ditugu cheese burgerra jan aurretik, eta ondoren.

Poliki- poliki, Elgoibarko erropa denda, lurrindegia zein burdindegia, etxebizitza bilakatuko dira, American mallek, saltoki txikiak itotzean.

Amaia Urzelai

[ZORTZIKO TXIKIAN]



SUSANA ALONSO

JULENE DENDAKOA

Zein da gehien maite duzun...

• Pelikula?

"El Silencio de los corderos". Beldurrezkoak izugarri gustatzen zaizkit.

• Aktorea?

Denzel Whashington da nire kuttunena.

• Liburua?

"El Codigo da Vinci" bukatu berri dut eta asko gustatu zait. Atsegin ditut genero horretako liburuak.

• Urtaroa?

Negua. Uda erantzungo lukete gehienek, baina guztien alderantzizkoa naiz ni.

• Jantzia?

Berokiak. Larruzko beroki eder bat esaterako, ezin egokia-goa egiten duen hotzetik babesteko.

• Ohitura?

Inauteriak gogoko ditut.


• Lana?

Ostalaritza. Dendako lana baino hobeto egiten dut.

• Obligazioa?

Plantatzea ezik beste edozer. Lanera joatea esaterako, beharrezkoa den arren, gustatzen zait.

komikia



Kokoe 003

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

«Telebisia, irakurketia, musikia»

Telebisia gure etxera oso berandu ekarri gendun. Nere alaba zaharrenak hogeitun urte inguru eukiko zittuan telebisia etxera ekarri gendunian. Ni ez nitzan telebisiaren aldekoa. Eskatzen zien etxian, baiña beti ezetz esaten naban. Nere ustetan, umiak telebisia euki aurretik beste afizio batzuk hartu bihar zittuen, irakurtzia eta musikia, adibidez. Hori ondo ikasi zebeñian ekarri gendun telebisia. Neri beti gustau izan jata irakurtzia, eta seme-alabak ere afizio hori hartzia nahi naban. Periodikua gaiñetik begiratzen dot, titular haundixak, eta artikulo interesanteren bat billatzen badot sartzen naiz barrura. Periodikuetako gizurrekin aspertuta nago.

Politikia etxata interesatzen batere. Hamaika urterekin kajoï dana nobelaz beteta eukitzen naban. Behiñ, aittak esan zidan: "Hi edo nobelak kalera?". Hogeta bat urte eukiko nittuan, eta lagunak soldadutzan zaudenez, hareri bialdu niuen liburu mordo bat. Aurrerago, rebistak, Euskal Herriaren historia... irakurri izan dot. Fikziozko liburuak etxataz gustatzen;

benetan pasautakuak, historikuak gustatzen jataz. Musikia entzuta ere asko gustatzen jata, musika "popularra" entzuten dot, Antonio Machin eta holakuak. Gaur egungo gitarra-zarata hori etxata gustatzen. Askotan seme-alaberi esaten diuet gaur egungo musikia plater mordo bat apurtziak etarutzen daban zaratia modukua dala. Adarra jotzen diuet.

Telebisia ekarri gendunian, pozik hartu zebeñ etxian. Gure andriari kalia esaten ziuen ia ikusi zaban programa bat edo bestia, eta harek beti esaten zaban guk ez zakagula telebisiarik: "Ez dakazuela telebisiarik?", galdetzen ziuen lagun danak. Azkenian berak ere insistidu zaban telebisia erosteko.

Neri etxatan gustatzen, eta gaur egunian ere aspertu egitten naiz. Basura asko dago telebisiuan. Gauza asko moztuta dakadaz: notizixak, futbola... Dana oso politizauta dago. Pelotia bai ikusten dot telebisiuan: hori gustatzen jata. Bestela, arratsaldetan ematen daban "bakeradia" ikusten dot; holako pelikulak beti gustau izan jataz.

[GURE BERBAK]

Ni baietzian nago

Elkarrizketetan, esaten jakunarekin ados gauden edo ez gauden adierazteko esaldi batzuk jasoko ditugu gaur eta datorren barixakuan; hori bai, adierazten daban indarrian eta haren erabilleran aldia aurkittuko du irakurriak. Gaurku, baietzekuak datoz, esaten jakuna berresteko erabiltzen diranak:

-Dantzan egitteko txakur haundixa pagau bihar zan? -Erregular!

-Entenditzen al dozu ETBko euskera? -Entendiduko ez dot ba!

-Triste egongo haiz ba lanik gabe geratu eta gero? -Ez dakik asko!

-Aurten ere jua haiz Mugerza krosera? -Horixe (jua naizela)!

-Indurain izan don euskal kirolariarik onena. -Horixe baietz!

-Aurten ere Kanarietara juango haiz oporetara. -Bienke! -Jubilau nok, eta gustora bizi nok. -Klaro! (-Karo!)

-Aurten Alaves primerara ixoko dala uste jonat. -Bai, ni ere baietzian nagon!

-Pozik egongo haiz etxe berixarekin, eztok? -Dudia (ala)!

-Aurten ere negua hotza dator. -Larri ibilli!

-Etorriko haiz afarira, eztok? -Akabo ba!

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

2005eko urtarrilaren 22an, 75 urte zituela hil zen

Juanita Osoro Larrañagaren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



EGUN BAT KROSEAN

MUGERTZA KROSA


Mugerza krosa tradizio bat da gure herrian. Asko dira bokadiloa hartuta Mintxetara igotzen direnak munduko atletarik onenak ikustera. Aste honetako errepotajeon kros egun bat nolakoa den isladatu nahi izan dugu. Protagonistak atletak diren arren, gure kamaren objektiboa "beste krosa" deitu genezakeen horretarantz begira jarri genuen, krosa bizitzeko ikuspuntu eta modu ezberdinak baitaude. Ikusi bestela argazkiok.



1. Tariku Bekele eta Maregu Tarefe etiopiarren arteko sprint biziaren ostean, Kenenisa Bekele Munduko kros txapeldunaren 18 urteko anaia gazteak jantzi zuen irabazlearen txapela. Fabiano Joseph tanzaniarra 3. postuan sailkatu zen.

2. Mila Anton eta Maria Jesus Insausti izan dira hirugarren urtez txarteldegian lanean: "Jende gehiena nagusien lasterketa ikustera etortzen da, eta ume askok beherapena eskatzen digute". Hotzari aurre egiteko, "salda eta txorizoa ekartzen digute, eta oso gustura egoten gara".

3. Merkadilloko saltzaileen izenean egin zuen korrika David Huebrak "Sigmara ez" dortsalarekin.





4. Felipe Barbero eta Eduardo Ayesta urtero joaten dira krosera hamaiketakoarekin: "Kroseko giroa izugarri gustatzen zaigu: alabek oso ondo pasatzen dute autografoak eskatzen".

5. Zoroen pare egin zuten lan tabernan. Normalean Conchi Maza bakarrik aritzen den arren, igandean 7 lagun ibili ziren.

6. Asko dira antolakuntzan lan egiten duten herritar eta bolondresak. Argazkian Fermin Arrese, azken itzulia iragartzen duen kanpaia astinduz.

7. Ser irratirako lan egin beharra izan arren, egun berezia eta atsegina izaten da Luis Garcia kazetariarentzat, zaletua izanik, miresten dituen atletak elkarriketatzeko aukera baitauka. Argazkian De La Ossa (5. postua) espainiarrarekin.



[PROTAGONISTA]



Jesus M^a Makazaga

Jesus Mari Makazaga Euskal Filologo eta irakasleak Elgoibarko Berbetiari buruzko ikastaroa eskaintzen dihardu. 26 lagun ari dira guztira gure herriko hizkera ikasten. Ikastaroak 24 orduko iraupena izango du eta sei astetan eskainiko da. Iaz ere ikastaro berbera eskaini zuten larunbat goizetan, eta orduan ere, beste 26 lagun aritu ziren.

"Elgoibarko euskara, galtzen utzi behar ez dugun altxorra" azterketa iaz aurkeztu zuen Jesus Mari Makazagak, eta bere nahia, 2005. urtea amaitu aurretik, ikerlana liburu batean jaso eta argitaratzea da.

[NOTIZIA]

Sigmak oztopoak dituela adierazi du Gipuzkoako Ezinduen Erakundeak

Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Erakundeak Sigmari buruzko ikerketa bat burutu du. Honen arabera, ezinduentzako sarrera oztopo handiak ditu Sigmak: Batetik, Sigmako zubiak aldapa handia eta lur labainkorra dituela adierazten da. Txostenaren arabera, gainera, eskailerak daude, eta oinezkoen zubi azpian dagoen aldapak %13ko desnibela dauka, eta gehienez %8koa onartzen du legediak.

Udalak berean darrai

Marivi Agirregomezkortak ere jaso du txosten hau, baina bere ustetan ikerketa ez dago ondo eginda: "Txostenean jasotzen den bi sarreretan oztopoak egon



arren, Goiko Errota zubitik ez dago inolako arazorik gurpildun aulkientzako".

Marivi Agirregomezkortak etxe guztietara gutun bat bidali du, azoka Sigmara eramatearen arrazoiak azalduz eta "herritar guztion hoberako" lanean ari direla adieraziz.

[ZENBAKIA]

731

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak 731 odol ontzi eskaini zizkion Gipuzkoako odol bankuari 2004. urtean. Elkarteak 650 bazkide ditu, eta odol beharraren arabera deitzen zaie odola emateko.

asteko [ARGAZKIA]



"Elurra teilatuan, zakua lepuan..."
Iritsi da azkenean hainbeste itxarondako elurra gure herrira ere. Aste osoan zehar kontuz ibiltzeko mezuak zabaldu dituzte komunikabide guztietan. Izotza, hotza, haizea eta elurra iragarri dituzte, Siberiako Fronte Polarra! Hitz potoloak dira baina, Elgoibaren behintzat, ez du eragin handiegirik izan. Hotza bai, baina elurra gutxi. Autoa hartu behar dutenentzat eguraldi eskasa benetan, baina umeentzat sekulako gozamen. Bakoitzak bere erara gozatu dezala!

4.205 bisita izan zituen Udalaren web guneak 2004 urtean



Elgoibarko Udalak 2004. urteko apirilaren 26an jarri zuen martxan bere web gunea, www.elgoibar.org helbidean. Data horretatik urtea amaitu bitartean, 4.205 bisita izan zituen.

Herritarrentzako web gunea

www.elgoibar.org web gunea herritarrentzako zerbitzu bat da. Euskaraz eta gazteleraz irakurtzeko aukera dago. Bertan, gure herriarekin zerikusia duten gauza desberdinak aurkitu daitezke. Batetik, albisteak ditugu. Herrian gertatzen denaren laburpena jasotzen da bertan.

Albiste nagusi bat egoten da ikusgai, eta beste albiste txiki mordoak kontsultatzeko aukera ere badago. Bestalde, hilabete bakoitzeko kultur gidaren berri ere ematen dute. Honez gain, Udaleko departamentu desberdinetako informazioa aurki daiteke, euskara, kirola, gazteak eta kultura, besteak beste. Industriak gure herrian duen garrantzia ere jaso dute, eta Elgoibarko enpresen zerrenda guztia ikusteko aukera eskaintzen du. Azkenik, herriko auzo eta baserri buruzko informazioa ere aurkitu daiteke web gune honetan.

[MOTZ-MOTZIAN]

Informazio teknologiei buruzko mintegiak IMHn

Miramón Digitalak antolatuta, informazio teknologiei buruzko mintegiak izango dira autonomo eta mikroenpresentzat. Mintegi hauek datorren otsailaren 3an izango dira, arratsaldeko 18:00etan, IMHn.

Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi dutenek 902 252 595 telefonora deitu edo [cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com) helbidera mezu bat idatzi dezakete.

Agenda 21 foroari buruzko bilera urtarrilaren 31n

Debegesak antolatuta, Agenda 21 foroaren inguruko bilera informatiboak izango dira Debabarrenako herri ezberdinetan. Elgoibarren datorren astelehenean izango da, urtarrilaren 31n, udaletxean, 19:30ean. Helburua biztanleek herriko ingurumenarekin zerikusia duten ideia eta iritziak ematea da. Foro hauetan herritar guztiak hartu dezakete parte.

Matrikula zabalik Elgoibarko euskaltegietan

Irailean euskara ikasteko edo hobetzeko modurik gabe gelditu zirenek oraintxe dute berriro aukera. Izan ere, AEK eta Udal euskaltegiak berriro zabaldu baitute matrikulazio epea. Interesatuak euskaltegietara bertara joan edo telefonoz deitu dezakete informazio gehiago lortzeko.

AEK: 943 74 13 32

Udal Euskaltegia: 943 74 27 31

1951ko kintoen bazkaria

1951. urteko kintoen bazkaria egingo dute martxoaren 12an Sigma jatetxean. Interesatuak, jatetxean eman dezakete izena (943 74 85 31) edo Hilariori deituta (943 74 01 82). Izena emateko azken eguna: martxoak 4.

13.000 kilo arropa Debabarrenako jantzi-kontenedoretan



Debabarrena eskualdeko bizilagunek 13.000 kilo arropa botatzen dituzte batezbeste hilero jantzi-kontenedoretara. Zerbitzu hau iazko uztailan jarri zen martxan, eta sei hilabete hauetan 77.500 kilo arropa jaso dira.

24 jantzi-kontenedore daude guztira eskualdean zehar banatuta. Elgoibarren bi ditugu, bata Madalan eta bestea Plaza Txikian. Gure herrian 7.947 kilo arropa bildu dira.

Oldberri enpresa eta Karitasek jasotzen dute arropa, birziklatu edota behartsuen artean banatzeko.

Inkesta

Aste osoa daramate elurra, hotza, izotza... datorrela esanaz eta tentuz ibiltzeko Eguraldi iragarpenek zerbaiterako balio dutela uste al duzu?

MARISA EZPELETA

Administraria

41 urte



“Bai, gaur Bergaratik hona beste lankide batekin etori naiz. Normalian esaten dutenari kasu egiten saiatzen naiz. Badaezpada hobe da kontuz ibiltzea.”

JUAN A. TXURRUKA

Tailerreko langilea

59 urte



“Bai. Nire ustez jendea kontu handiagoz ibiltzen da, autoan batez ere. Telebistan esaten dutenari derrigorrez egin behar zaio kasu, ez dago beste erremediorik.”

JOSE A. MORENO

Jubilatua

58 urte



“Bai, jendea kontuz ibiltzeko balio dute. Autoan dabiltzanakin kateak erosi behar izan ditu. Ni arropa mordo batekin iritetzen naiz kalera hotzik ez pasatzeko.”

CONCHI CALDERON

Etxekoandrea

53 urte



“Ez. Beharra daukanak autoa berdin hartzen du. Auto ilara handiak ikusi dira egun hauetan, eta istripu mordoak egon da. Askok ez dute kasurik egiten.”

[BAI ala EZ?]

Italian bezala, leku publiko guztietan erretzea debekatzearen aldeko al zara?

BAI %36

EZ %64

“Tabakoaren kea kaltegarri da, baina ez erretzen dagoenarentzat bakarrik, ingurukoentzat ere. Debekatuz gero, askok gutxiago erreko luke, eta batzuk utzi egingo lukete. Osasun hobe eta herri garbiagoa edukitzearen alde nago ni.”

“Inondik ere ez, eta ez dut hori esaten erretzailea naizelako. Elkar errespetatzea beharrezkoa da, baina horretarako debekak jartzea ez da beharrezkoa. Gune publikoetan ere erretzaileentzako gune espezifikoak egokitu beharko lirateke.”

Datorren asterako....

Euskal Herriko garabiak greban daude berriz. Justifikatua dagoela iruditzen al zaizu?

Erantzunak: barren@elgoibarkoizarra.com edo Barreneko postontzian.

[GOMENDIOA]

Elikadura eta bizitza



Lucia Casquero
Kemen berlandenda

Gaur egun gero eta gehiago kontsumitzen ditugu biologikoki batere elikatzen ez duten jaki industrialak.

Eta hau da, hain zuzen, hainbat eta hainbat gaixotasunen arrazoa. Izan ere, herri garatuetan ikaragarri ugaltzen ari dira alergiak, reumak, bihotzeko gaitzak, diabeteak, obesitatea... Hau da, elikadurarekin zerikusia duten gaitzak. Paradoxikoa da: desioak gero eta eskuragarriago ditugun bitartean, nahieza, estresa eta bizitzeko gogo falta ere handitzen ari dira.

Berehalako plazerra nahi dugu eta azaleko bizitza daukagu. Elikaduran ere, azkar jaten ditugu azaleko produktuak, artifizialak. Azkar eta gaizki elikatzen gara. Bizitza, beraz, poza eta pena, biek osatzen dute.

Gutako bakoitza da bere Gorputzaren erantzulea eta gutako bakoitzak arduratu behar du bizitzaren aurrean daukagun jarrera baikorra izateaz, elikadura osasuntsua eta orekatua izateaz. Autoari gasolina ona ematen diogu, konpontzera eramaten dugu eta, tarteka, berria erosten dugu. Gure gorputza bakarra da eta ordezeko aldagarri gutxi ditu.

Azken batean, gurea den "auto" horri "gasolinarik" onena "bota" behar diogu guk nahi dugun lekura eraman gaitzan. "Jaten duguna gara": begietatik sartzen zaiguna, entzuten duguna, jasotzen ditugun ferekak, maitasuna... Horiek guztiek elikatzen gaituzte.

Gugan dago osasuna zaintzea. Gugan dago gure patua.

[OSASUN GIDA]

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte
Urasandi, 9 • Tel: 635 71 55 03
Egunero: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro
Astelehen eta asteazken: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegun: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra**

HANDITZEN, HANDITZEN...

“Handitzen, handitzen, hasi naiz handitzen txikia izanik...”. Azken urteotan izugarri handitu da Mendaro. Etxe mordoak eraiki dituzte, denda eta taberna berriak ireki dira, gero eta zerbitzu gehiago dago, eta Debabarrena eskualdeko ospitalea ere bertan dago. 1684 biztanle ditu gaur egun, eta 1996an 1314 zituen. Udaletik esan digutenez, hazkunde hau 2000. urteaz geroztik gertatu da batez ere, eta jaiotze tasa ere izugarri hazi da. Gaurkoan lau ikuspuntu desberdin jasotzen ditugu gure erreportajearen.



MIREN VIVES Mendaroko Hirigintza Batzordeko lehendakaria

«Herriko jende gaztea herrian gera zedin beharrezkoa zen etxe berriak eraikitzea»

• **Zein izan da hainbeste etxebizitza eraikitzearen arrazoia?**

Duela hamabost bat urte, Mendaron ez zegoen etxebizitza berria erosteko aukerarik, eta jende asko joan zen inguruko herrietara bizitzera. Une hartan beharrezkoa zen etxebizitza berriak eraikitzea, batez ere gazteak herrian gera zitezten. Datozen bi urteetan beste 120 bat etxebizitza eraikiko dira.

• **Hazkuntza onerako izan al da?**

Ezin esan txarrerako izan denik. Kanpotik etorri den jende gehiena gaztea da, eta horrek herriari etorkizuna ematen dio. Lortu behar dena jende hori mendarotar

egitea da, herrian partehartzea, eta ez soilik pisu merkeago bat aurkitu duelako hemen bizi den norbait izatea.

• **Zerbitzu berriak martxan jartzeko proiekturik ba al dago?**

Bai, noski. Ongizate sailean, esate baterako, Osasun zentrua handitzen ari gara pediatria zerbitzua jasotzeko, Jubilatuen lokala ere handitzen ari gara eta, gutxi barru, Landa eremuko zentru balioaniztunaren obrak hasiko dira. Agustindarren komentuko obrei dagokienez, ikuskizun aretoa eta musika irakaskuntzarako eraikina aurrean bukatuko dira, Gaztegunearekin batera.

Mendaroko aurrekontuak kontutan izanda, zerbitzu maila ona izango duela iruditzen zaigu. Dena den, herri txiki batean bizitzeak bere gauza on eta ez hain onak dauzka.

• **Etorkizunera begira nola ikusten duzu Mendaro?**

Ondo. Orain transizio batean gaude. Hazkunde prozesuak ez dira bizitzaren arlo guztietan abiadura berean ematen. Mendaron etxebizitza eraikuntza gainontzeko arloak baino arinago doa. Orain, bizilagunen bizitza kalitatea hobetuko duten arloak jorratzea tokatzen zaigu.



FORENTINO LARRAÑAGA Mendaroko bizilaguna

«Lehen denok ezagunak ginen kalean»

• **Noiztik bizi zara Mendaron?**

58 urte dauzkat eta Mendaron bizi naiz jaiotzenetik. Lehenengo baserrian, eta azken 25 urteetan kalean.

• **Asko handitu al da Mendaro azken urteotan?**

Bai. Etxe berri mordoak eraiki dituzte, eta industrigune berrian enpresa berri ugari ireki dira. Jende asko etorri da Mendarora bizitzera, eta hori kalean igartzen da. Lehen denak ezagunak ginen kalean, eta gaur egun ezezagun asko ikusten da.

• **Onerako ala txarrerako izan da hau?**

Momentuz onerako izan dela esango nuke. Lehen ez geneukan farmaziarik, denda oso gutxi zeuden herrian... edozertarako kanpora joan behar izaten genuen. Gaur egun gero eta zerbitzu gehiago daukagu eta garraio publikoa ere asko hobetu da. Hala ere, gehiegi handitzea ez dut uste ona denik.

• **Zer botatzen duzu faltan Mendaron?**

Mendaron gauza asko egin daitezke oraindik: Kirolegia, zinema, frontoi berria... beste itxura bat hartuko luke herriak.



JOSE ALDAZABAL Arrats tabernakoa

«Etorri diren askok ez dute bizimodua Mendaron egiten»

• **Noiztik daukazu negozioa Mendaron?**

1981etik. Lehen urteak izan ziren onenak. Ez zen gaur baino jende gehiago ibiltzen, baina diru gehiago lagatzen zuten. Gaur egun jaietan bakarrik erantzuten du jendeak. Jaietan mendaroarren ez dute hutsik egiten, nahikoa da auzo bateko jaiak izatea mendarotar denak hantxe biltzeko. Osterantzean jendeak ondoko herrietara hanka egiten du.

• **Mendaro hazi denik igarri al duzu?**

Jende gehiago dagoela igartzen da, baina lehen jende gutxiago egonagatik gehiago dibertitzen ziren. Izan ere, etorri den jende berri gehienak ez du bizimodua Mendaron egiten. Asko lotara bakarrik etortzen dira. Bezero berriak umetxoak dituzten gurasoak dira. Dena dela, nire bezerorik onenak betikoak dira.

• **Ba al dakizu zein den Mendarokoa eta zein ez?**

Harritu egiten naiz lehen aldiz ikusten ditudan bezeroek hemen lau hilabete daramatzatela esaten didatenean. Ez dira Mendarora egin, ez dira herriko bizimoduan integratu eta oraindik ez dira hemengo jendearekin nahastu. Denborarekin egingo dira, baina Mendaron bizi diren eibartarrak eta elgoibartarrak izaten jarraitzen dute.



NORA BASTIDA Odontologoa

«Mendaron falta zen zerbitzu bat eskaini nahi izan dut»

• **Zergatik aukeratu duzu Mendaro Hartz Klinika zabaltzeko?**

Elgoibarren jadanik nahikoa Hartz Klinika eta odontologo daudela ohartu nintzen. Eta Mendaron oraindik hartz klinikarik ez zegoela ikusirik, zerbitzu hau eskaintzeko aukera ona zela ondorioztatu nuen. Batez ere jende nagusiagoarentzat, beti behar baitute norbait autoz ondoko herrietara lagunduko dituen, e.a. Gainera, Mendaron gero eta etxe gehiago eraikitzen ari direla konturatu nintzen eta jende gaztea etortzen dela hona bizitzera.

• **Imaginatzen al zenuen Odontologia ikasten hasi zinenean Mendaron kontsulta jarriz amaituko zenuenik?**

Inondik inora. Luze eta sakon pentsatutako erabakia izan zen, noski, baina argi neukan hasieratik. Gogo handiarekin hasi naiz eta momentuz ez nahiz hartutako erabakiaz damutzen.

• **Joango al zinateke Mendarora bizitzera?**

Bai, herri moduan gustatzen zait. Herri polita eta lasaia iruditzen zait. Askoz gusturago nago Mendaro moduko herri txiki batean hiri handi batean baino.

GAZTIA NAIZ

Look aldaketa

Eulali Moreno



Itxura aldaketa bat egiteko gogoaz zeukala aitortu digu Eulali Morenok, "hiru hilabetez behin zeharo aldatzea gogoko dut, baina duela urtebete ilea motz laga nuenetik ezer egin gabe nengoen. . Aspertu naiz luzea edukitzeaz eta mozteko unea proposa zen. Antzerki Talde batean antzezlari bat prestatzen nabil eta zuzendariak gehiegi ez mozteko eskatu arren., ileapaintzaileak proposatutakoari kasu egin diot, eta asko gustatu zait nola laga didaten".



prozesua...

Idama ileapaindegian



Aurpegiaren eta izaeraren arabera egiten dira horrelako "look aldaketak". Horregatik egin diogu Eulaliri orrazkera ausart hau, motza eta luzea nahastuz.



Barrutik, buru gainetik, hustu diot ilea, pisu guztia kenduz eta gainetik ile luze motox batzuk utziz. Flekiloari, berriz, punta itxura eman diogu.



Aldaketa radikalak egiteko oso konbentzituta etorri behar da. Ile mozketa hau oso aproposa da jendea ilea moztera animatzeko.

Zure txura DOAN aldatu nahi al duzu? Jarri gurekin harremanetan: barren@elgoibarkoizarra.com



bituzik sexologi txokoa

Eli Moreno [Sexologoa]

«Gazteak ez dira uste den bezain promiskuoak»

2003-2004 ikasturtean ikerketa bat egin zuen Lahi Sexologia Taldeak Donostiako 12 ikastetxetan. 12 eta 15 urte bitarteko 987 ikasleri harreman sexualen inguruko galdeketa egin zitzaion. Eli Moreno Lahiako kide da eta gaur egungo gazteek lehen harreman sexualen inguruan dituzten kezka eta zalantzen berri eman digu. Adibide gisa, 15 urte eta erdiko gazteen %18ak aitortzen du koitoa izan duela.

• Ikerketek eta telebistak erakusten duten errealitatea bera al da?

Beti esaten da gazteen sexu harremanak gero eta lehenago hasten direla, nahiko promiskuoak direla... Halere, gazteekin lan egiten dugunoi justu kontrakoa transmititzen digute: Ez dugu ligatzen!!! Hemen ez behintzat!

• Elgoibarren ez da ligatzen baina kanpoan bai?

Gertatzen dena da, gazteen sententzia ez datorrela bat errealitatean gertatzen denarekin. Ez da egia guk ez

dugula ligatzen eta besteek bai. Errealitatean guztiok antzera gabilta. Askotan, gizarteak bultzatzen duen eredu jarraitu nahian edo eredu horren kontra ez joateko, asko ixildu egiten dira.

• Eta koito harremanei dagokionean?

Datuek diotenez, DBH4an dauden gazteen %18ak ez du koitorik izan. Are gehiago, harremanak izateko beharrezkoa dute bikotea ezagutzea, konfidantza izatea, berarekin denbora eramatea... Hau da, edozeinekin ez luketela egongo.



gazte
informazioa

BEKAK

GRADUATU ONDOKO IKASKETAK

La Caixa Fundazioak Frantzia, Alemania eta Estatu Batuetako unibertsitateetan graduatu ondoko ikasketak egiteko bekak emango ditu. Unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroetan ikasketak zabaltzeko, lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzat 20 beka eskaintzen ditu. Beken iraupena 12 hilabetekoa izango da gehienez ere. Informazio guztia lortzeko: www.estudios.laCaixa.es. Epea: ekainak 30.

IKASTAROAK

ELIKAGAIEN ERABILTZAILA AGIRIA

Elikagaien erabiltzaila agiria lortzeko prestakuntza ikastaroa antolatu da elkarlanean. Sei orduko iraupena izango du eta apirillean hasiko da, Donostiako Anoeta pasealekuko Gaztegunean. Izena emateko epea: apirilak 13. Informazioa: 900 110 111 telefonoan.

LANA

EMAKUMEEN AUKERA BERDINTASUNERAKO AGENTEA TOLOSAKO UDALAN

Tolosako Udalean, emakumeen aukera berdintasunerako agente bat aldi baterako kontratatuko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: erdi mailako titulua, unibertsitateko titulua edo titulu baliokidea. 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea. Epea: otsailak 5. Informazio gehiago jasotzeko: 943 654 466 telefonoan edo www.tolosakoudala.net orrian.

ADMINISTRAZIO OROKORRA

Eibarko Udalak Administrazio orokorreko bi laguntzaile kontratatuko ditu hiritarren Arreta zerbitzurako. Epea: otsailak 11. Informazio gehiago: Eibarko Udaletxean.

LEHIAKETAK

ANDRE MARI ZURIAREN JAIK

Gasteizko Udalak, Andre Mari Zuriaren jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. 300 euroko sari bakarra egongo da. Epea: ekainak 1. Informazio gehiago: www.vitoria-gasteiz.org orrian.

KOMIKI LEHIAKETA

Arrasateko XVIII. Komiki Lehiaketaren deialdia egin da. Sariak, 30 eta 190 euro artean. Maila ezberdinak daude. Epea: otsailak 4. Informazio gehiago: kultura@aedelkartea.com orrian.

MARTXOAK 8 KARTEL LEHIAKETA

Arrasateko udalak Martxoak 8 kartel lehiaketa antolatu du. Saria: 800 euro. Epea: otsailak 16. Informazio gehiago: www.arrasate-mondragon.org orrian.

SALUDACTIVA

10 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua. Lehiaketa eta jalasa da, ohitura osasuntsuak bultzatzeko helburuarekin. www.saludactiva.com

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461



Astearetik-ostiralera: 16:30-19:30

KEPA URAIN 25 URTEZ SANTA ESKEKO ETXEGIÑA TALDEAN KOPLARI

«Eztarriak oso ondo erantzun dit 25 urte hauetan»



👤 25 urte Santa Eskean koplak kantari, errez esaten da, ezta?

Kopla kantari 25 urtez, baina Santa eskean askoz gehiago. 1960. urtean atera nintzen lehenengo aldiz, Patxi Igartua nire lagunak animatuta. Betidanik gustatu izan zait bertsotan aritzea, eta eztarriak ondo erantzun dit. Osasuna garrantzitsua izan da niretzat 25 urte hauetan. Gustura egiten den lanak ez dauka nekerik, ez aldaparik. Niretzako hau ez da lana, Santa Eske eguna zoragarria da.

👤 Nola hasi zinen koplak kantatzen?

1980. urtea zen. Aubixan jaialdi berezi bat egin genuen. Meza, bazkaria eta bertso saioa. Bertsotan ari ginela, Santi Kortabarria zena etorri zitzaidan, urte hartan koplari egiteko eskatuz. Etxegiña gaixo zebilen, eta baiezkoa eman nion, baina hurrengo urterako besteren bat bila zezala. Hurrengo urtean, Etxegiñak eta Santik berriz deitu zidaten, eta Etxegiña negarrez hasi zitzaidan. Emozionatu egin nintzen, eta ezin izan nion ezetzik esan. Lasaitzeko eskatu nion, eta bizi banintzen, jubilatuta arte neuk jarraituko nuela koplari agindu nion. Baina bera bizi zen bitartean, Errosario kaleko Salbea berak abesten zuen.

👤 Noiz arte jarraituko duzu koplak kantatzen?

Momentuz Etxegiñari egin nion promesa bete dut. Hemendik aurrera osasunak laguntzen didan bitartean jarraituko dut koplari lanetan.

👤 Koplak momentuan asmatutakoak izaten dira?

Ez, aurrez prestatzen dira. Batzuk beti berdinak dira, eta beste batzuk urtero aldatzen ditut. Aurtengorako ere prestatu ditut koplak berri batzuk, munduan dagoen egoera triste gaitzat hartuta.

👤 Zenbat jende biltzen zarete taldean?

Urte baten 70 lagun atera ginen. Neska oso gutxi etortzen dira. Nere ilobak izan ziren lehenengo neskak, eta orain ere oso gutxi etortzen dira. Hau ez da gizonezkoen lana bakarrik, eta guk emakumeak onartzen ditugu. Ez dakit zergatik ez diren animatzen.

👤 Nola erabakitzen duzue bildutako dirua nori eman?

Azken urteotan Karitasi eman diogu. Lehen herriko behartsuei ematen zitzaien. Haserre handiak sortu ziren, eta metodoa aldatu egin genuen.

👤 Ba al dakizu nor zen Santa Ageda?

Siziliako emakumea zen Ageda, oso behartsua eta langilea. Denei laguntzen ibiltzen zen beti. Asko sufritu zuen, orduko agintariak ez zeuden berarekin gustura. Atxilotu egin zuten, bularrak moztu zitzioten eta hil egin zuten.

👤 Gazteek eutsiko al diote tradizio honi?

Baietz uste dut. Etxegiña eta bere lagunak 1925ean hasi ziren Santa Eskean, eta pena izango litzateke tradizio hau galtzea.

«Etxegiña negarrez hasi zitzaidan,
eta ezin izan nion ezetzik esan»

“IZARREN HAUTSA, 40 URTEAN” LIBURUAREN AURKEZPENA Bazkideen artean doan banatuko da eta gainontzekoak salgai jarriko dira



Aurkezpen hunkigarria prestatu zuen Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek “Izarren hautsa, 40 urtean” liburua aurkezteko. Imanol Larrañagak, Elkarteko dinamizatzailea eta liburuaren egilea, Marivi Agirregomezkorta alkateak eta Beñat Bilbao, Elkarteko presidentek, hartu zuten hitza. Hauxe gain, Luis Mari Iriondok 1972. urtean grabatutako irudi batzuek ikusi ahal izan zituzten Musika Eskolako auditorioa bete zuten lagunek Elgoibarko Izarraren izena ezagutzen

dutenei Elkartean izana ezagutaraztea zela liburua idazteko arrazoi nagusietako bat azaldu zuen egileak, “Elgoibarko Izarraren lehen 40 urteak jasoak geratu dira liburuan eta herritarren artean zabaltzea da gure nahia”. Elkarteko protagonista izan diren 44 laguni eginiko elkarrizketak aurki daitezke liburuan hainbat erretratu zaharrez gain. Liburua dohainik banatuko da Elkarteko ia 600 bazkideen artean, baina salgai ere jarriko da Elgoibarko Izarran (10 euro).

Japoniar pertsonaia batean oinarritu da Sinuose

Inauteriak ailegatzearekin bat, Sinuosek emanaldi berri bat eskaintzen digu. Aurtengoa bederatzigarrena izango da eta urte hauetan denetik egin dutela aitortu digute Patxi zabalek eta Iban Urizarrek, beti ere musikaren itzalpean. Oraingoan Japoniar pertsonaia batean oinarritu dira. Sokake Tamasa Japoniar jaiotako pertsonaia da, mutua jaiotzez eta kantaria bihotzez. Fonetika zuen gogoko, hitzen jokuak, ez esanahiak. Hain zuzen ere, filosofia horrek erakarri ditu Sinuoseko kideak. “Oso pertsonaia interesgarria iruditzen zitzaigun eta omenaldi honen bitartez errebindikazio antzeko bat egin dugu. Kantuak abestuko ditugu, gure memorian urteetan zehar gordetzen joan den erreperitorioa”.

Inauteriak Mendaron

Inauterietan, “Apika” Antzerki Taldeak emanaldia eskainiko du Mendaroko Goñati pilotalekuan. Arratsaldeko 17:00etan izango da otsailaren 5ean. 18:00etan, txokolatada izango da eta ondoren, diskoteka karaokearekin.

autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**



Internet: Zer eskatu behar diot Web garapenerako zerbitzuen hornitzaileari?

Zure Web orrialdea sortu nahi? Hornitzailearekin harremanetan jartzerakoan jakin beharrekoa erakutsiko dizugu: nola aukeratu egokiena, bilatzaileen garrantzia...

Susritzaileak:



Deba Barrena
otsailak 3
ELGOIBAR
Máquina Herramienta BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
España Digital

Dirulaguntzak Antton Alberdi eta Morkaikorentzat EMFren mendizaletasun festan

Euskal Mendizale Federakundeak mendizaletasunaren urteroko festa ospatu zuen joan zen urtarrilaren 21ean, Tolosako Leidor aretoan. Sareaz gain 2004. urteari dagozkion dirulaguntzak ere banatu zituzten. Alor honetan bi dirulaguntza Elgoibarrera egokitu ziren. Batetik, Antton Alberdi gazteak 900 euroko dirulaguntza jaso zuen Euskal Mendizale Federazioaren Eskalada.net web gune ofiziala sortu eta garatzeagatik. Eta bestetik, Morkaiko Mendizale Elkarteak 600 euro jaso zituen morkaiko.com abian jartzeagatik. Azken hau ere, Antton Alberdi berak diseinatutako web gunea dela aipatu beharra dago.



ELITE TXAPELKETA

Asier Berasaluze berriztarrak jantzi zuen lau eta erdiko txapela



Euskadiko Lau eta Erdiko Elite Txapelketaren finalak ez zuen kolorerik izan. Asier Berasaluze berriztarrak 22 eta 6 hartu zuen mendean Gorka Lopez Aldai aurrelaria. Berriztarrak zazpi sake sartu zizkion Ortuellakoari eta hau izan zen partidako gakoetako bat. Afizionatu mailako zortzi pilotari onenentsuenek parte hartu dute

Elgoibarren hirugarren urtez jarraian jokatu den Elite mailako txapelketan. Berasaluzek Andoni Eguskiza zomotzarren lekukoa hartu du, bera izan baitzen lehen bi edizioetako txapeladuna. Denboraldi bikaina burutzen ari da berriztarrak, DV torneo entzutetsuan finalera iristea lortu baitzuen Apraizekin bikotea osatuz.

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

HO EI

**EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**

Jardiñeta, 3 bis
20600 EIBAR

**MATRIKULA
LIBREA 2004/05**
ZALDIBAR, MALLABIA,
ERMUA ETA DEBA
BAILARAN
bizi direnentzat

- MATRIKULA SOBREA
JASOTZEKO:
Otsailaren 1etik 15era.
 - TOKIA: HE0eko Idazkaritzan
 - MATRIKULA BURUTZEKO:
Sobrean adierazitako egun eta
orduan.
- NANa BEHARREZKOA DA**

Argibide gehiago: 943 20 06 18
eoieibar@euskalnet.net
www.eoieibarheo.net

Egoitz Morak senior mailako Espainiako Judo Txapelketan parte hartuko du



Eskuman Egoitz Mora.

Espainiako Judo Txapelketaren Iparraldeko Sektorean urrezko domina irabazi ostean, senior mailako Espainiako Judo Txapelketan parte hartuko du Egoitz Morak Madrilén. Egungo Euskadiko txapelkun gisa iritsi zen judoka elgoibartarra Erreterian jokatu zen lehiaketara, eta sasoko zegoela argi laga zuen, aise garaitu baitzituen Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko txapelkunak.

Beheragoko maila ia guztietan garaipen handiak lortutakoa da elgoibartarra, baina senior mailako norgehiagoka eskuratzea lorpen handia litzateke xx urte dituen judoka gaztearentzat.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Portugalete **5** - Haundi **1** (3. maila)
 Elgoibar **1** - Soraluze **2** (1. erreg.)
 Elgoibar **4** - Amorebieta **2** (Jub.)
 Elgoibar **6** - Antoniano **0** (Kad.)
 Ordizia **3** - Elgoibar **0** (Inf. A)
 Beasain **1** - Elgoibar **4** (Inf. B)
 Elgoibar **0** - Almen **2** (Neskak F-8)

PILOTA

4 ta erdiko Elite Txapelketa

Berasaluze **22** - Lopez Aldai **6**
 Zapirain **22** - Errea **13** (3. eta 4. postua)

Euskal Herriko Liga

Ilunpe **22** - Lagunak **6** (Jub. binaka)
 Aurrera **30** - Lagunak **19** (Jub. neskak, palaz)

Udaberri Txapelketa

Lagunak **16** - Hemani **22** (Kad.)
 San Esteban **22** - Lagunak **5** (Nag.)

Beri Txapelketa

Irurtzun **66** - Lagunak **34**

XAKEA

Gipuzkoako Liga

Elgoibar **3** - Idiazabal **1** (1. maila)

ESKUBALOIA

Zarautz **27** - Sanlo **20** (Inf. mut.)
 Kukullaga **43** - Pagoaga Sanlo **12** (Kad. nes.)
 Kukullaga **20** - Cometel Sanlo **18** (Jub. nes.)
 Arrate **28** - Tecnomeca Sanlo **21** (Kad. mut.)
 Pneumax **20** - Gatz museoa. **22** (Jub. mut.)
 Sanlo **24** - Basauri **20** (Sen. nes.)
 Donibane **21** - ANTT Sanlo. **25** (Sen. mut.)
 Tecnifuelle **15** - Romo **15** (Sen. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 29

16:30 Haundi - Eibar (3. maila)

Domekia, 30

10:30 Elgoibar - Urola (Neskak F-8)

12:15 Elgoibar - Aretxabaleta (Inf. A)

16:00 Elgoibar - Sansé (Inf. B)

ESKU PILOTA, Ikastolako frontoian

Euskal Herriko Liga

Zapatua, 29

11:30 Lagunak - Aurrera (Jub. neskak, palaz)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 29

17:30 Pagoaga - Urdaibai (Kad. nes.)

19:00 Cometel Sanlo - Urdaibai (Jub. nes.)

20:30 Sanlo - Leizaran (Sen. nes.)

Domekia, 30

10:30 ANTT Sanlo - Urola (Sen. mut.)

13:30 Sanlo - Arrasate (Inf. mut.)



Mikel Leonek irabazi du Elgoibarko Xake Txapelketa

Azaroan hasi zen Elgoibarko Xake Txapelketa iritsi da amaierara. Hamairu partaide aritu dira lehia, tartean hiru kanpotar, eta elkarren aurka jokatu ostean Egoitz Iurre zestoarra eta Mikel Leon elgoibartarra izan dira onenak. 12 partida jokatu ostean, biek puntu kopuru bera lortu zuten, 10,5 puntu, alegia. Elkarren artean jokatu zuten finala ere

berdinketarekin amaitu zen, eta bost minutura jokatu zen desberdinketa partidaren Egoitz Iurre nagusitu zen. Hortaz, txapelketa zestoarrak irabazi arren, Elgoibarko Xake Txapelketa Mikel Leonentzat izan zen. Juan Manuel Navarro sailkatu da hirugarren postuan 10 punturekin eta Ivan Fernandez laugarren 7,5 punturekin.

Merkatua

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[PARTIKULARRAK]

† 2. hezkuntzan, 4. mailako matematika eta fisika klaseak jasoko nituzke.
☎ 629 40 32 34

GARAJEAK

† Garaje komunitarioa alokatzen da San Roke auzoan.
☎ 653 73 94 67
† Garaje itxia salgai Ermuaranbide kalean. 19,90m²
☎ 943 74 28 75
† Madalako errotondaren ondoan garaje itxia salgai.
☎ 943 74 24 06

BESTERIK

† Zilar koloreko pultsera galdu dut. Balore sentimentala du. Saritu egingo da. ☎ 619 04 56 46 (Begoña)
† Erretxindin perikito batek ihes egin zuen hilaren 19an. Hankan eraztuntxo bat dauka. ☎ 943 74 25 51
† Taberna alokatzen da Elgoibarren.
☎ 943 74 03 92
† Aterki gris berria topatu dut apeaderoan. ☎ 943 53 16 72
† Jertse beltza galdu nuen urte zahar egunean Iratxo tabernan. Udaltzaingora eraman.
† Trasteroa hartuko nuke alokairuan.
☎ 943 53 13 67
† Txakur zuria aurkitu dut San Lorentzo inguruan. ☎ 943 74 12 23
† Taberna alokatzen da Basarten.
☎ 670 65 49 21
† Sofa zaharrak botatzeko dituenak, mesedez deitu, gazte lokalera behar ditugu. ☎ 679 08 94 81

LANA

ESKAERA

† 37 urteko gizona baserrian lan egin, nagusiak zaindu edo beste edozein lanetarako prest. ☎ 699 71 28 97
† Emakumea lanerako prest.
☎ 677 05 99 99

† Emakumea edozein lan egiteko prest. Arratsalde, 14:30-17:00.
☎ 665 755 211

† Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 665 72 20
76/943 53 15 76 (gavez)

† Emakumea umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 660 91 94 23

† Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 650 82 92 46 (eguerdi/gavean)

† Pertsona bat arratsalde lan egiteko prest. ☎ 636 923 990

† Emakumea nagusiak zaindu, garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 639 88 20 04

† Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 943 17 28 96 (Mertxe)

† Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.
☎ 679 86 41 47

† Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkartek...), nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne.
☎ 618 37 91 47

† Gizonezkoa pintore, peoi edo banatzaile lanetarako prest.
☎ 679 86 41 47

† Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.
☎ 659 627 356 (Khadra)

† Boliviako mutila peoi, txofer edo banatzaile lanetarako prest.
☎ 620 36 38 24

ESKAINITZA

† Asteburuetarako kamareroa behar da. ☎ 635 75 16 42

† Jatetxerako sukaldaria eta kamarera behar dira. ☎ 943 12 12 62

† Tailer mekanikarako langile-ikaslea behar da. ☎ 902 10 32 87

† Neska behar da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Egun solteak.
☎ 943 74 18 46

† Eibarko tabernarako pertsona eskalduna behar da. Autoa ezinbestekoa.
☎ 943 70 19 95 (22:00etatik aurrera)

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

† Etxea salgai Urasandin. 90m². Dena kanpora begira. Terraza, 2 komun, 3 logela, egongela. ☎ 943 74 08 26

† Etxe adosatua salgai. Dena berritua. 217m². 48 milioi. ☎ 686 22 84 04

† Etxea salgai Madalan. 64m². Eraikuntza berria, bi logela, komuna, egongela, sukalde, trasteroa eta garajea. ☎ 677 24 39 61 (18:00etatik aurrera)

† Pisua salgai Sigman. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. Prezioa adosteko. ☎ 685 76 61
54/943 74 29 21

† Etxe berritua salgai Soraluzen. Komunak eta sukalde amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. 144m². ☎ 615 77 99 20

† Etxe salgai Basarteko lehen ilaran. 68m². Dena kanpora begira. Bi logela, 2 komun, egongela, sukalde, lehorte-gia eta garajea. ☎ 687 23 58 39

† Etxe salgai Erdialdean, leku lasaia. 3 logela, 2 komun. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 615 78 71 18

† Etxea salgai Basarten. 74m². Garajea aukeran.
☎ 687 05 17 89

† Etxea salgai Santa Ana kalean. Sukalde, egongela, komuna, 3 logela, despentsa, 2 ganbara. Argitsua, lasaia.
☎ 685 767 900

ALOKAIRUA

† Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar, Mendaro edo Eibarren.
☎ 687 05 38 11

† Pisua alokatzen da Urasandin. Egongela, sukalde, bi komun, 3 logela. ☎ 943 74 15 27

SALEROSKETAK

† Opel Vectra 2.0, 115cv. salgai. 240.000km. Egoera onean. 2200 euro.
☎ 656 70 29 59

† Opel Vectra Caravan 82cv. salgai. 160.000km. Egoera onean. 1997koa. Prezio onean. ☎ 620 27 61 28

† Bi eskopeta eta 5 tiroko errepetidora salgai. ☎ 943 74 00 79

† Ardiak eta arkumeak salgai.
☎ 943 75 51 04 (Migel)

† 4 kaxa Veterano, 4 MG, kaxa bat Explendido, kaxa bat 103 salgai. Prezioa adosteko. ☎ 635 75 16 42

† Bigarren eskuko Corbero izozkailua salgai. Oso egoera onean. 91x70 (270 litro). 130 euro. ☎ 943 74 23 39

† Kenwood markako irriti kaseta salgai. 6 CDrentzako kargadora. Egoera onean. 150 euro. ☎ 626 588 482 (Imanol)

† Toshiba Satellite A6521 ordenagailu portatila salgai. 4 hilabete. 15" pantaila. 600 euro. ☎ 650 34 44 28 (Ibon)

† San Roke auzoan 4000m²-ko terrenoa salgai. ☎ 627 377 543

† Opel Corsa, 1.7 di autoa salgai. Modelo berria. Egoera onean.
☎ 943 74 01 97/645 048 110

† Garaiko andregai trajera salgai. Egoera oso onean.
☎ 943 02 66 27/609 200 620 (Toñi)

† Hispano-arabe arrazako zaldia salgai. Hezitua eta pasiaran ibiltzeko egokia. ☎ 669 03 89 57

† Vitrozeramika, laba, konbia eta mepansa salgai. Berriak, merke.
☎ 943 74 04 86

† Sukaldeko mahaia, bi banketa eta bi aulki salgai. Egongelako armairuak ere bai. ☎ 943 74 04 86

† Renault Megane Scenic 1.9 dci grisa salgai. 2000. urtekoa. 8.500 euro.
☎ 660 660 503 (Ibon)

† Mitsubishi Montero Sport 2.5 tdi Gls plus, 115 zaldi, 4x4 salgai. 2003koa, 35.000 km. Beti garajejan. ☎ 639 179 171

† Sehaska bat salgai, forratuta. Prezio onean. ☎ 943 74 16 19



Linazasoro7, 2. ezk. (MENDARO)
Tel.: 653 707 837
jundaneze@hotmail.com

- Altzariak
- Armairuak (enpotratuak...)
- Tallak
- Erreformak
- Eskailerak
- Ateak, lehiok
- Parket-ak, tarimak...
- Egurrezko estrukturak
- Sukaldeak



URKIDI AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE
LAN
FISKAL**

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



[AGURRAK]



‡ Zorionak **Alberto Uzkudun** hilaren 23an urteak egin zenituelako. Zure emaztearen partez.



‡ Zorionak **Jose Migel Martin Prieto** urtarrilaren 25ean 7 urte bete zenituelako. Gurasoen eta Nela txakurtxoaren partez.



‡ Zorionak **Joseba Tamayo Rojo** hilaren 27an 14 urte bete zenituelako. Gurasoen partez.



‡ Mila kilo zorion gure etxeko **poxpolinari** hilaren 30ean, 18 urteak parranda eginez ospa ditzan. Familiakoaren partez.



‡ Zorionak **Irene** hilaren 30ean, 3 urte egingo dituzulako. Familiakoaren eta bereziki, amama Ines eta aitxitxa Rafaren partez.



‡ Zorionak **Julen!** Etxekoaren partez.



‡ Zorionak **Miren** otsailaren 5 urte egingo dituzulako. Familiakoaren eta bereziki, ahizpa Nagoreren partez.



‡ Zorionak **Ane** gaur, hilak 28, 5 urte egin dituzulako. Gurasoen eta senideen partez.



‡ Zorionak **Urko** urtarrilaren 27an, 4 urte egin zenituelako. Gurasoen senideen partez.



‡ Zorionak **Ion Maiztegori** urtarrilaren 24an, urtebete egin zuelako. Txintxo-txintxo jarraitu!



‡ Zorionak **Markel Labrador** hilaren 29an urtebete egingo duzulako. Gurasoen partez.



‡ Zorionak **bikote** urtarrilaren 26an eta 2an urteak egin zenituztelako. Familiakoaren eta, bereziki, Izaroren partez.



‡ Zorionak **Belen eta Balentin** zuen lehenengo urtebetetzean. "Guripanton"en partez.



Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte (1963-2003)

«IZARREN HAUTSA 40 URTEAN»

Elgoibarko Izarrako bazkide direnek etxean jasoko dute liburua doan. Bazkide ez direnentzat, berriz, liburua salgai dago 10 eurotan Elkarteak Ubitarten duen lokalean eta Pitxintxu dendan.

karkizano
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



[OKINDEGIA]



30 igandea IBARRENEA



[FARMAZIAK]

EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
28 Fernandez	Fernandez	IBÁÑEZ
29 Yudego	Yudego	Rekalde, 1 Soraluze.
30 Yudego	Yudego	Tel: 943 75 16 38
31 Zabaleta	Zabaleta	FERNANDEZ
1 Etxeberria	Etxeberria	Herriko enparantza 4, Garagarza.
(Errosario)		Tel: 943 75 61 42
2 Ibañez	Ibañez	ZABALETA
3 Bidasolo	Bidasolo	Kalebarren, 9 Soraluze.
4 Etxeberria	Etxeberria	Tel: 943 75 13 84
(Santa Ana)		



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatoria	943 03 26 10	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Larrialdiak	943 46 11 11	Kiroldegia	943 74 44 15
Planning-a	943 74 29 50	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Liburutegia	943 74 35 25
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Musika Eskola	943 74 21 45
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Mintxeta	943 74 43 15
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Parrokia	943 74 08 42
Odol Emaileak	943 74 39 36	Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEAK	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	IKASTETXEAK	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udaltzaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua	
GARRAIOAK		Areiturre	943 74 80 19
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
PESA (Eibar)	902 10 12 10	Ikastola	943 74 44 41
Taxi geltokia	943 74 08 98	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
Bizkaibus	902 222 265		



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandek eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandek eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[28 BARIKAKUA]

9:00 BOSKO DEUNA
 Elgoibar BH Institutuan

19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA
 Ikastolako frontoian

19:30 HITZALDIA
 Antton Karrera, Gipuzkoako Ezker Batua-Berdeakeko koordinatzailea eta Oscar Matute parlamentaria.
 Gaia: Egoera politikoa Kultur Etxean

[30 DOMEKIA]

9:30 ITZIARKO LIZARRETA MENDIRA IRTEERA
 Irteera: Plaza Handitik
 Antolatzailea: Herri Eskolako Mendi Taldea

10:00 URNOBITZARA MENDI IRTEERA
 Irteera: Elgoibar Ikastolatik
 Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

[31 ASTELEHENA]

19:30 FORO HERRITARRA
 Gaia: Agenda 21
 Udaletxean

SINOPSISIAK

«El mensajero del miedo»



[1 MARTITZENA]

19:30 BATZARRA

Gaia: Europako Konstituzioaren aurka dauden elgoibartarren ezetza nola bideratu
Kultur Etxean

[2 EGUAZTENA]

10:00-19:00 KANDELARIA

Kandelen bedeinkapena
Parrokian

[3 EGUENA]

09:15-19:00 SAN BLAS

Opilen bedeinkapena
Parrokian

15:30 OSTEGUN GIZENA

Lehen Hezkuntza eta DBH 1-2ko ikasleen kalejira mozorrotuta

18:00 INFORMAZIO TEKNOLOGIEI BURUZKO MINTEGIA

Autonomo eta mikroenpresentzat
Antolatzailea: Miramon digitala
IMH-n

[4 BARIXAKUA]

14:30 SANTA ESKEA

Baserriz baseri
Iriteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

15:30 SANTA AGEDA BEZPERA

Ikastolako haurren kalejira
Ikastolatik Plaza Handiraino
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

22:15 SINUOSEREN IKUSKIZUNA

"Zinema Itsua"
Kultur Etxeko sotoan

ZINE KARTELDGIA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIAN

«El mensajero del miedo»

28, barixakua: 22:15

29, zapatua: 19:30-22:15

30, domekia: 19:30-22:15

31, astelehena: 19:30-22:15

«Supertramps» (euskaraz)

31, domekia: 16:30

«Swing» (Z.K.)

3, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Elektra»

28, barixakua: 19:30-22:15

29, zapatua: 17:00-19:30-22:30

30, domekia: 17:00-19:30-22:30,

31, astelehena: 19:30-22:15

1, martitza: 19:30-22:15

2, eguaztana: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Obsesión»

28, barixakua: 19:30-22:15

29, zapatua: 17:00-19:30-22:30

30, domekia: 17:00-19:30-22:30,

31, astelehena: 19:30-22:15

1, martitza: 19:30-22:15

2, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Zuzendaria: Jonathan Demme.

Antzezleak: Denzel Washington, Meryl Streep, Liev Schreiber.

Bennet Marco, Amerikako Estatu Batuetako lurreko ejertzitoaren komandanteak, ezin du lorik egin ametsgaiztoen eraginez. Kuwaiteko basamortuan bere pelotoiak jasan zuen eraso eta Shaw sargentuak bere gizon guztiak salbatzeko nola arriskatu zuen bizitza han eta hemen hitzaldien bitartez azalduz bizi da komandantea. Ametsetan, ordea, ez du horren argi Shaw sargentua heroi bat den ala ez. Gauzek okerrera egingo dute Shaw AEBetako presidente orde izateko aurkezten denean, bere amak, Eleanor Prentiss Shaw senatariak, lagundu eta bultzatuta.

«Swing» (Z.K.)



Zuzendaria: Andrei Zvyagintsev.

Antzezleak: Oscar Copp, Lou Rech, Tchavolo Schmitt.

Max, 10 urteko seme bakarra, Miraldo izeneko kitarra jole apartari entzunez zaletu da "manouche" jazz estilora. Bere pasioa bilakatuko da eta Miraldok emango dizkion klaseei esker "manouche" musika eta kultura ikasten hasiko da. Segituan egingo du lagun Swing, bere adin bereko "manouche"-a. Swing-en askatasunak eta bere ziurtasunak liluratu eta erakarriko du Max. Tony Gatlif argeliar jatorria duen zinemagile frantziarrak ijitoen kultura eta bizimoduari buruz zuzendu duen laugarren filma da.

Atzera hegira



1959. urteko erretratu zahar hau herritar batek laga digu. Argazia herriko taberna batean aterata dago, Manuel Unzueta ren despedidan, Australiara joan aurretik. Bertan koadrila bereko lau lagun ageri zaizkigu, baina mahaian jende gehiago zegoen. Australian urte mordo egin zituen azukrezko kainaberak mozten. Lau aldiz egin du Australiara joan eta etorri. Itsasontzian mundu erdi ikusi du, beste herrialde batzutan ere lan eginez. Dudarik gabe, gauza asko ikusi ditu elgoibartar honek! Argazki honek ere berarekin bidaiatu duela dirudi, eta kresala probatu duela esan daiteke. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren lau gizon hauek. Ezkerretik eskumara: **Orencio Serrano, Sabin Beristain, Ramon Ezenarro, eta Manuel Unzueta.**



ESKERTZA

2005eko urtarrilaren 23an, 81 urte zituela hil zen *Tomas Azpeleta Toledano* ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2005eko urtarrilaren 16an, 70 urte zituela hil zen *Agustin Urain Arro n are* n seme-alabek, anai-arrebek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





- Maila guztiak
- EGA
- Irakaskuntza zein administraziorako perfilak
- Euskalduntzearen 1, 2 eta 3 agiriak

GOIZEZ, ARRATSALDEZ ETA GAUEZ



æk Euskaltegia

Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@æknet.net

Ikasle, guraso eta langabetuek
MATRIKULA ERDIA
(Udalaren laguntzaz)

Z
U
B
I

F
A
R
M
A

PARAFARMAZIA

- Puerikultura
- Dietetika, belardenda
- Ortopedia
- Kosmetika, higieena



Herriko Enparantza, 9 - **MENDARO**

Tel.: 943 03 16 46

D Elustondo, S.L.

EDARI BANATZAILEAK

Elustondok gomendatuta:

FAUSTINO



*Faustino I
erreserba handia*



*Faustino V
erreserba*



*Faustino
kriantza*



*Faustino VII
hainbat urtetako
nahasketa*



*Faustino Cava
"Brut nature erreserba"
"Erdi lehor" eta "lehorra"*

DAVID MORENO



David Moreno erreserba eta erreserba handia

David Moreno kriantza

*David Moreno kriantza 2001 "Selección de la familia"
Espainiako katatzaileek emandako zilarrezko Bacchus
sariaren irabazlea*

JUVE CAMPS



*Reserva familia
Brut reserva "cinta purpuraz"*

JUME SERRA



*"Brut nature reserva"
"erdilehor" eta "lehorra"*

ARACO



*Araco
Kriantza*

San Roke, 32 - 34 (Institutu parean)

Tel. 943 74 09 92